



3 UDALBATZARRA
Siriar errefuxiatuak hartzea onartu du Udalbatzarrak

Asteartean egin zuten alderdi politikoei ikasturteko lehen ohiko udalbatzarra, Lasarte-Oriako Udalean. Besteak beste PAH-Kaleratzeak aurkeztutako mozio bat onartu zuten, kale-errefuxiatuak amaitzeko hainbat neurri ezartzeko konpromisoa hartuz. Siriako eta gatazkan diren beste herrialde batzuetako errefuxiatuen aterpetzaile izateari buruzko mozioa ere aztertu eta onartu zuten. Zinegotzi guztiek eman zieten babesa aipatutako bi mozioei.

5 ERREPORTAJEA
Pako Aizpitarte, herria bihotzean zeraman azpeitiarra

1957an etorri zen Pako Aizpitarte Lasarte-Oriara, apaiz moduan jardutera. San Pedro elizan ibili zen aurrena eta Kotxerako San Franciscogero. Herrian apaiz gisara aritu zen urteetan lotura estua izan zuen herritarrekin eta haien arazoekin. Landaberi ikastolaren sorreran ere presente egon zen, idazkari gisa lan eginez 1966tik 1981era. Ttakunen 2001etik aurrera ere aritu zen ahal zuen arlo guztitan laguntzen, TXINTXARRI aldizkarian batez ere. Abuztuaren 2an zendu zen; meza egingo dute bihar 19:00etan San Pedro elizan bere omenez.



Sasoeta-Zumaburuk eta Garaikoetxea-Landaberrik martxa hartu dute berriro, udako oporren ostean. Haurrek oso gustura hasi dute 2015-2016 ikasturtea.

Urtero moduan, hainbat aurpegi berri ikusi dituzte herriko bi ikastetxeetako zuzendari, irakasle eta zaha-ragoak diren ikasleek. Garaikoetxea-Landaberrin 2 urteko 72 haurrek eman dute izena oraingoz; Sasoeta-Zumaburun 46 ikasle hasi dira maila horretan. Ikastetxeetako arduradunek esan dute zifrak aldatu egin daitezkeela oraindik, izen-emate epea irekita baitago.

Udako oporrak iraun bitartean lasai eta isilik egon diren ikastetxeak eta inguruak biziberritu egin dira berriro ere; ikasleak itzuli dira geletara.

Garaikoetxea-Landaberrin bi urteko 72 haurrek hasi dute aurtengo ikasturtea. Lehengo urteko kopuru bera, oraingoz. HH3ko ikasleei dagokienez, 18 ikasle berri gehitu zaizkie lehengo urtean jada HH2

mailan egon zirenei. Aurreko urtean 15 izan ziren maila horretan hasi ziren haurrak.

Sasoeta-Zumaburun aldiz, 46 dira 2 urteko geletan hasi diren gaztetxoak; iaz 48 izan ziren matrikulatutakoak. Ikasle berriak ere edukiko dituzte HH3 mailan. Guztira 41 haur ariko dira; horietako 3 berriak dira aurten. Iazko ikasturtean 9 ikasle berri hasi ziren ikastetxean maila horretan.

Bi ikastetxeetako arduradunek esan dute aldatu egin daitezkeela kopuru horiek, izena emateko epea oraindik zabalik dagoelako.

'Gurasoleku' zerbitzua

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak, ikastetxe, guraso elkarte, AEK eta Ttakunekin, 2 urteko haurren gurasoentzako eskaintza prestatu du: 'Gurasoleku' du izena. Gaztetxoak "ahalik eta euskal hiztun osatuenak" bilakatzea da egitasmoaren xedea.

Familiaren alorrera zuzendutako zerbitzua da 'Gurasoleku'. Horren baitan hainbat egitasmo biltzen dira, esparru desberdinak landuz. 'GurasoLagun' du izena horietako batek. Eguneroko jardunean

euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak elkartzean datza, elkarrekin euskaraz aritzeko ohitura hartzeko.

'GurasoTegi' delakoarekin, gurasoak ikasle izango dira. Euskara-eskolak jasoko dituzte haurrak klasean egon bitartean. Abenduan hasi eta maiatzera bitartean bi orduko bi saio eskainiko ditu zerbitzuak, ikastetxeetan bertan. Saiok 100 euro balio dute, baina diruaren %85 berreskuratatu ahaliko dute, eskola-orduen %85 betetzea.

Azkenik, 'GurasoLandia' aisialdi eskaintza bat da, aurreko bietan parte hartu duten gurasoentzat. Urtariletik maiatzera, hilean behin bildu eta ekintza bat egingo dute.

aeK euskara praktikoa



Eskolak



Mintza praktika



Barnetegiak



On-line



Autoikaskuntza



Normalizazio planak



Titulatu homologatuak

Eman izena

30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan

MUNTERI AEK EUSKALTEGIA

Geltoki kalea 17 behea
20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63

100 orduko klaseak, iraila
Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA)
Euskalduntzeko maila guztiak
Euskara agiriak

lasarte@aeK.eus
www.munteri.blogspot.com.es

Neure kabuz



Maider Segurola

Bisitaria

Nahi baino lehenago iritsi da Noraingoan ere. Ezin diogu aurpegiatu abisatu gabe etorri denik, urte hasietatik baitzuen tren txartela eresia eta etorriko zenaren jakitun ginen. Sukaldeko horman zintzilik dugun egutegian apuntatuta izan dugu hitzordua urte osoan eta halere, ezustean harrapatu gaitu. Badu horretarako besteek ez duten gaitasun bat. Besteek baino isilagoan egin ohi du gureganainoko bidea. Ez digu aurrez mezurik bidali prestatzen joan gintezen eta aterik ere ez du jo lotsagabeki barrura egin aurretik.

Horrela sartu zaigu, sukalderraino, baimenik eskatu gabe. Urteroko tokian utzi du agendaz, orri zuriz eta konpromisoz betetiko bere larruzko maleta handia eta bere etxean balego bezala atera dizkigu armairutik jertseak, txaketak eta lepokoak. Inoiz baino lehenago itzaltzen digu argia iluntzetan, osasunerako ona den aitzakian hotza pasarazten digu tarteka eta hori gutxi ez eta tabernaren batean ahaztu genuen aterkiaren ordezkia erosteko garaia ere badela gogorarazi digu. Eta guk, badaezpada ere, ameto.

Urterokoa izan arren, beti egingen zait astuna bisita hau. Ez dut maite eta esango nuke berak ni ere sobera ezetz. Bai, tarteka izaten du detaileren bat; kultur ekitaldi interesgarriren batera gonbidatzen nau edo Kontxako estropada egunean bere aurpegiarik xamurrena erakusten dit,... baina orokorrean ez gara ondo moldatzen.

Alde on bat du, etorri den bezala joango dela. Zaratarik egin gabe. Bitartean... pazientzia Maider, poliki baina Iraila badoa eta.

Zorion agurrak



Patxi eta Vicenta

Zorionak Patxi eta Vicenta zuen urrezko ezteiangaitik. Zuek erakutsi diguzue benetako maitasuna existitzen dela urteak pasa arren. Maite zaituztegu, Mari Cruz eta Elixabet.



Naiara

Zorionak maitia zure 4.garren urtebetetzean!!! Muxu pottolo bat amatxo eta aitatxoren partetik!!!



Maren

Zorionak printzesa!!! 5 urte...Ze handia egiten ari zaren...!!! Muxu pottolo asko aitatxo, amatxo eta Enekoren partetik.



Unai

Gogoratu bizitza ederra dela eta ez du axola zenbat urte betetzen dituzun, baizik eta egiten duzun gogoarekin. Zorionak!



Malen, Aizpea eta Eneritz

Zorionak hirukote!!! Beste urtebete pasa dala ta zuek beti bezain guapa zaudete!!! Muxu pottolo bat familian partetik.



Markel

Zorionak maitia!!! Urtebetetze egun zoriontsua izan dezazula. Ane, Manex eta familia guztiaren partez!!!!



Itsaso eta Maitane

9 eta 4 muxu pottolo familia guztiaren partez!!



Naiara

Zorionak zure lankideen partetik!!! Asturiaseko sagardoa eta txistorra taloak zure kontu!!!



Larraitz

Zorionak Larraitz! Ondo pasa zure urtebetetze egunean! 8 muxu familiaren partez!



Uxue

Zorionak printzesa zure 5. urtebetetzean familia osoaren partetik! Muxu pottoloak!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- 37m2ko lokala alokatzen dut Basaundin. garaje edo biltegi bezala erabili daiteke eta txokoa ere badu. 943 36 00 42
- Alokairuan etxea hartuko nuke herrian, bi logela eta 500 euro inguruan. 673 38 14 70

Lan-eskaintza

- Sukaldaria jornada osora eta asteburueta-

rako zerbitzaria behar dira Lasarte-Oriako taberna batean. Tel.: 618 639 054

Lan-eskaria

- Emakume arduratsu eta euskaldunak umeak edo adineko pertsonak zaintzen lan egingo luke. Esperientziarekin 2 arloetan. Tel.: 666 382 688, Arantxa

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Iraia Gonzalez Martin, irailaren 1ean.
- Ander Dorransoro Albero, irailaren 1ean.



Heriotzak

- Ceferina Mantilla Weill, irailaren 8an, 92 urte zituela.
- Jose Domingo Segurola Zubeldia, irailaren 7an, 88 urte zituela.
- Nicanor Pedraz Cenizo, irailaren 3an, 97 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 11**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Larunbata, 12**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 13**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 14**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteartea, 15**
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
- Asteazkena, 16**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Osteguna, 17**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 371629
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Munteri AEK 943 372863

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odiozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Lasarte-Oriako Udala kaleratzeen aurka

Alderdiek galdera sorta ederra egin zuten

Asteartean ikasturte berriko lehen ohiko batzarra burutu zen Lasarte-Oriako Udalean. Honetan, besteak beste, PAH-Kaleratzeak aurkeztutako mozioa eta Siriako gerratea eta gatazkan dauden beste herrietako errefuxiatuen aterpe izatea eztabaidatu ziren.

TXINTXARRI

Asteartean, lehen puntuak, uztaileko udalbatzarren aktak, 2015 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ematea, Udaleko ondasun eta eskubideen 2014ko inbentarioan egindako aldakuntzak onestea eta 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren dosiera onartzea era azkarrean aurrera atera zituen Udalbatzarrak.

Puntu batean, Udaleko ondasun eta eskubideen 2014ko inbentarioan egindako aldakuntzaren onespenean, hain zuzen ere PPko zinegotziaren abstentzioa izan zen.

Kaleratzerik ez

Ostean, Bozeramaileen Batzarrak aurrez onartuta "PAH-Kaleratzeak STOP Desahucios"-en mozioa aur-

keztu zen, "Kaleratzeak bukatzea exijituz eta Udalaren kolaborazioa eskatuz hauek bertan behera gera daitezzen".

Honen bitartez, PAH-Kaleratzeak Stop plataformak Lasarte-Oriako Udalarikaleratzerik ez gertatzeko lan egitea eta hainbat neurri har ditzan eskatu dio, hala nola, kaleratzeen aurka Udalean pertsona bat lanean egotea, kutxei kaleratzeak geratzeko eskatzea edo Udalaren esku dauden etxe libreen inbentarioa egin eta haien erabilera bermatzea. Zinegotzi guztiak mozioaren alde agertu ziren.

Alderdien galderak

Galdera eta erreguen txanda ere izan zen. Honetan alderdiek hainbat galdera luzatu zizkieten alkateari besteak beste, Atsotakar erresidentziaren eskumena eta langi-



Ikasturte berriko lehen batzarrean zinegotzi guztiak izan ziren.

leen egoerari buruz, herrian agertu diren arratoiei buruz, Udalak RGI-a jasotzen duten herritarrei eskaintzen zaizkien lanpostuei buruz, Hipodromo etorbideko etxebizitzari buruz, Okendo plazako garajei buruz edo herriko elkar-teei lokalak lagatzeari buruz.

Alkateak azaldu zuenez, Atsotakarrek kudeaketa azaroan Aldundiaren esku gertatu da, baina Udala eta Foru Aldundiaren artean ez dago hori ziurtatzen duen dokumenturik. Horregatik, Maite Peña Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako arduradunarekin bilera egingo da prozesua zehazteko.

Langileei dagokionez, langile eta sindikatuek Aldundiarekin adostutako diru kopuru bat dela aipatu zuen. CLECE eta Udalak ez dutela diru hori zoz eta arazoa dirua emateko prozeduran dagoela azaldu zuen.

Arratoien arazoari aurre egin eta enpresa bat lanean dagoela jakitera eman zen.

Era berean, RGIa jasotzen duten herritarrentzat lanpostuak eskaintzeko asmoa zegoela aipatu zuen. Programa %55ean Eusko Jaurlaritzak lagundua da eta %45 Udalak ordaindu beharko luke, "baina aurtengo aurrekontuetan ez dago dirurik

horretarako eta hurrengo urtera itxaron beharko litzateke, partida 2016ko aurrekontuan sartu ostean".

Hipodromo etorbidean erakikitzen ari diren etxebizitzari buruz, proiektua aurkeztu bezala aurrera eramango dela aipatu zuen, 15 solairuko dorrea eta 6 pisuko beste bloke bat. "Gaur egun obra geratua dago, bi promotoren arteko liskar bat dela eta. Baina 2017an amaituak egon beharko lirateke".

Okendo plazako garajeen harira, hauek esleitzeko prozedura martxan jarri dela aipatu du alkateak. Hala ere, prozeduraren pleguak gainbegiratu eta zirriborro berri bat Ogasun batzordean aurkeztuko duela jakitera eman zuen.

Hau guztiaz gain, aurreko Gobernuak elkar-teei lokalak uzteko prozeduraren aurka zeudela aipatu eta hautzatat elkar-teen hotel bat sortuko dela azpimarratu zuen.

Eta azkenik herritarrek izan zuten hitza.

Aipatzekoa da Jesus Zaballos alkateak bi hizkuntzatan zuzendu zuela udalbatzarra.

Siriar errefuxiatuen hartzaile

Betalde, PSEE, EH Bildu eta Lasarte-Oriak Ahal du alderdiek "Lasarte-Oriako udalerrria Siriako gerrako eta gatazkan diren beste herrialde batzuetako errefuxiatuen aterpetzaile deklaratzeko"-ri buruzko adostutako mozioa aztertu zen Udalbatzarrean.

Alkateak azaldu zuenez, PSEEk aurkeztutako mozioak emendakinak izan zituen bi alderdi hauek egindakoak eta beraz, hiru alderdiek adostutakoa aurkeztu eta alderdi guztiek onetsi zuten.

Mozio honetan adostutakoa eta Lasarte-Oriak jarraituko dituen pausoak azaltzeko asteakenean prentsaurrekoa egin zuen Jesus Zaballos alkateak.

Mozioa

Udalbatzarrean adostutakoaren arabera, Lasarte-Oria herri aterpetzaile bezala eskaintzen da.

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundi eta EUDEL-i elkarlanean plan bat gauzatzeko eskatzen dio, baita herri hartzaileen elkartasun sare bat sortzea ere. "Horrelako krisi

egoera batean, erakundeen koordinazio oso garrantzitsua dela deritzogu, guztion esku egongo baita erantzuna eta laguntza ematea", aipatu zuen alkateak.

Espainiako Gobernuari, berriz, malgutasuna eskatzen dio Europar Batasuneko erabakiak onartu eta asilo eskararak onartzeko, baita egoera aurrera eramateko politika komun bat eta honen kudeaketa egitea ere. Eta gatazka amaitzean, errefuxiatuei bueltatzeko aukera emateko laguntzak aurreikustea eta haien eskura jartzea ere eskatzen da mozioan.

Agerraldia

Alkateak asteazkeneko agerraldian azaldu moduan, Lasarte-Oriako Udalak, hartzeak dituen errefuxiatu posibileen berri jakindakoan, Bozeramaileen Batzarra deituko du, hartu beharreko neurri zehatzak erabakitzeko.

"Gure esku ditugun zerbitzu guztiak eskainiko ditugu, Zelaialdeko etxebizitza sozialak, pertsona adinduentzako

etxebizitza tutelatuak edo dependenteak badira Atsotakarren plaza izateko aukera... baina oraindik ez dakigu zein motako harrera egin beharko dugun. Gizarte Zerbitzuko arloa prest dago larrialdietarako laguntzak emateko eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, janari banaketa egiteko ere hitz egin dugu," aipatu zuen.

Herritarren laguntza

Herritarrei ahal duten neurrian lagundu dezaten eskatu eta laguntzeko dituzten moduak azaldu zituen.

Batetik ekonomikoki, dagoeneko inguruko herrialdeetan edo Europako beste batzuetan errefuxiatu-eremuetan edo harrera-zentroetan aurkitzen diren ehunka mila pertsonak mantentzeko, CEAR eta ACNUR erakundeek irekitako kontuen bidez.

Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR) erakundearen BBKko 2095-0002-60-9104192594 kontuan, letra larriz DONATIVOACOGIDAREFU-



Jesus Zaballos alkatea agerraldian.

GIADOS adierazita lagundu dezakete; edo bestela ACNURen Banco de Santanderko 0049-1800-172110528944 kontuan, erreferentzia gisa EUSKADI jarrita.

Era berean, herritarrek familia edo pertsona errefuxiatuak etxean hartu edo arropa edo janari eskaintza ere egin dezakete. Horretarako, 944 43 12 74 harrera-telefonora deitu dezakete.

Honetan datu pertsonalak, herria eta zein laguntza mota eskaintzeko prest dagoen azaldu behar dute herritarrek. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak zerrenda bat egin eta herriei helaraziko die.

Alkateak jakitera eman duenez, "era honetara, harrera familiei laguntza eskainiko zaie. Esate baterako, umezur-tzen bat baldin badator. Partzuergoarekin negoziatu eta harrera familiar haurtzaindegian plaza bat eskaini eta kuotak ordaintzetik kanpo gera daitezke".

Alkatearen hitzetan, herritarrek duten bizitza kalitatea eta zerbitzuak haien eskura jarriko dituzte. "Epe luzerako geratuko dira gure artean eta asiloa lortu arte behintzat lagundu beharko zaie. Eta hau beste erakundeek ere kontuan izatea nahiko genuke."

ALBOKA ABESBATZA Ikasturtea hasi da

Alboka Abesbatzak 2015-2016 ikasturte berriaren entseguak hasi ditu eta 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera. "Etorri gu entsaiatzen ikustera eta, gustuko baduzu, gurekin abestera gonbidatzen zaitugu".

Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun. Informazio gehiago jasotzeko idatzi info@alboka-abesbatza.com-era.

IKASTAROA

Janari Manipulatzailerik ikastaroa

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatzailerik ikastaro berri bat emango du irailaren 15ean.

Ostalaritzako sektoreari zuzendua dago eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak jorratuko dira. Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan eskainiko da ikastaroa, 9:30etik 13:30era.

Prezioari dagokionez, pertsonako 45 euro ordaindu behar dira. Langabetuentzako, berriz, prezio berezia dago 35 euro eta erregimen orokorra duten pertsonen bonifikazioak lortu ditzakete.

Informazio gehiago jaso edo izena emateko, bi telefono dituzte herritarrek: OMIC 943 36 16 05 edo Elkolab 943 53 33 03.

XUMELA KORUA

Ikasturte hasiera astelehenean

Xumela koruak, ikasturte berriko kantu saioei datorren irailaren 14ean, astelehenean, arratsaldeko 19:30etan emango die hasiera Landaberri BHIko eraikinean.

Koruko lagunek azaldu legez, edonork du tokia Xumelan euskaraz eta alaitasunez, kantari, lagun giro eder batez gozatzeko. Ez dago adin mugarik eta ez da kantu maila berezirik behar. "Kantatzeko eta ongi pasatzeko gogoia besterik ez".

Aurten gainera bere ibilbidearen 10. Urtea beteko du Xumela koruak eta urtean zehar ekitaldi ezberdinekin ospatuko du.

Xumelan parte hartu nahi duenak beraz, nahikoa du Landaberriko eraikinerara hurbiltzea. Astelehenean 19:30etatik 20:30etara izaten dira saioak.

MATRIKULAZIOA

Lasarte HHIn matrikulatzeko aukera

Formazio arautua (DBH) eta zikloetarako sarbide frogak egiteko matrikulazio epea irailaren 3an zabalduko da eta 15era bitartean izango dute herritarrek aukera Lasarte HHIn izena emateko.

Formazio ez arautuko ikastaro eta ikasgaietan interesa dutenek berriz, irailaren 9tik 15era izango dute izena emateko epea.

Izena emateko, astelehenean ostegunera 11:00etatik 13:00etara eta ostiraletan 10:00etatik 12:00etara egin ahal izango da. Matrikulak zentroan bertan egingo dira, anbulatorioko eraikinean.

Edozein zalantza edo informazio eskuratzeko www.EpaLasarte.es edota 943 366 608 telefonora jo daiteke.

Extremadura etxekoan asteburu handia

Gaur ekingo diete Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiei



Giro bikaina egon ohi da urtero Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaietan.

Urtero moduan, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaia ospatuko ditu herriko elkarteak. Gaur hasi eta igandean amaituko dira. Banderaren altxatze ekitaldiarekin irekiko dute ekintzaz jositako egitaraua Extremadura etxeko kideek. Antolatzaileek gonbita egin diete herritarrei ospakizunetara hurbildu eta jaietz gozatzeko.

TXINTXARRI

Banderaren altxatze ekitaldiarekin, 21:00etan hasiko dira gaur aurten Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko ospakizunak.

Urteroko ekintza da hori, tradizionala, baina berrikuntzak ere topatuko dituzte herritarrek aurten egitarauan. Esaterako, argazki lehiaketa. Atzo arteko epea eduki zuten herritarrek euren irudiak bidaltzeko; sariak igandean banatuko dituzte, Bikain okindegian 13:30ean.

Ez dira horiek gaur gaueko ekintza bakarrak izango.

Giro paregabea egongo da Jaizkibel plazan 21:00etatik hasi eta gaueko ordu txikiarra arte. Izan ere, 'ExtremayDura' musika jaialdia antolatu baitute.

Rock estiloko hainbat talde igoko dira oholza gainera: The Garax herriko taldea izango da lehenengoa, 21:00etan bertan. 22:00etan The Zepo hernaniarren txanda izango da. Handik ordubetera erregistroa pixka bat aldatu eta 'Country' estiloko 'The Northagirres' Urretxuko taldeak eskainiko du emanaldia. 00:00etan berriz, Bad Religion taldearen abestiak jotzen dituen Bar Remigio ariko da. Amaitzeko, DJ Avilak dantzan jarriko ditu herritarrak 01:00ean.

Bien bitartean, Extremadura etxean afari herrikoia egingo dute 21:30etatik hasita. Kaldereta gozoa dastatuko dute afarira joaten direnek.

Larunbateko ekintzak

Biharko ere hamaika ekitaldi

prestatu dituzte antolatzaileek. Gaztetxoentzat margolaritza lehiaketa dute, 10:00etan. 11:00etatik 17:00etara mota guztietako jokoak jarriko dituzte Jaizkibel plazan eta hori amaitu bezain pronto txokolatada gozoa dastatuko dute.

Nagusiek, aldiz, 12:00etan edukiko dute hitzordua Extremadura etxean; meza nagusia ospatuko dute. Bazkari herrikoia egingo dute 14:00etan. Erreterriako Extremadura etxetik 'Raices y brotes' taldea etorriko da seietan, emanaldia eskaintzera. Bederatzieta berriz, agintari eta bazkideek elkarrekin afalduko dute.

Igandean amaiera

Zambra taldearen emanaldiak emango dio hasiera ospakizunaren azken egunari, 12:30ean. 14:00etan bazkaria antolatu dute Extremadura etxean. 16:30ean tute txapelketa hasiko da eta 18:00etan boloena.

Jaiei 20:00etan emango diete amaiera, banderaren jasotze ekitaldiarekin.

MAiTE

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Lasarte-Oria bihotzean

Pako Aizpitarte abuztuaren 2an hil zen eta bihar San Pedron meza egingo zaio

1957. urtean iritsi zen Pako Aizpitarte Lasarte-Oriara, "26 urterekin seminariotik atera berria, 1957ko irailean" gogoratzen du Miren Zubeldia herritarrek. Azpeitiarra jaiotzez, Lasarte-Oria bihotzean zeramala esaten zuen beti Pakok. Euskararen esparrua izan zen bere borroketako bat, Landaberri ikastolaren sorreran guraso talde batekin batera gogor lan egindakoa. Apaiz lanak utzita, IRALEko idazkari eta zuzendari jardun zuen erretiroa hartu arte. Urte luzeak eman zituen Ttakunen laguntzen, zehazki TXINTXARRIN.

Abuztuaren 2an 81 urte zituela hil zen Pako Aizpitarte. Azpeitiarra jaiotzez, Pako seminariotik irten eta Lasarte-Oriara bidali zuten 1957. urtean. 'Don Francisco' deitzen zioten herritarrek orduan. Miren Zubeldiak kontatu bezala, euren etxean izan zen estanko gaineko pisura mugitu arte. Bertan izebarekin egon zen hau hil arte eta ondoren herrira bidalitako beste apaizekin bizitzen egon zen atari bereko beste etxean.

Apaiz lanez gain, lantxo ezberdinak ere egiten zituen Pakok eta ateratzen zituen xoxa horiekin ordaintzen zuen etxebizitza edota elizarako beharrezkoak ziren gauzak.

San Pedro parrokian eskaini zituen bere lehenengo mezak eta ondoren, Kotxerasen zabaldu zen San Francisco parrokian jardun zen. Obra amaitu gabe bertan lehenengo meza ematera animatu zela gogoratzen du bizi-lagun batek. Gaztea zen orduan Pako eta berehala harreman estua egin zuen herriko gazteekin. Garai politiko mugituak ziren eta gazteekin batera lan asko egin zuela gogoratzen du Felipe lagunak. "Pertsona ona izateaz gain, tenple handia zuen, edozein ekaitzaren aurrean lasaitasuna jartzeko gai zena".

Herrian egin zituen urteetan, 20 inguru, oso lotura estua izan zuen herritarrekin baita hauen arazoekin ere.

Langileen borroka eta greba garaiak izan ziren eta ez zuen alde batera egin. Ahal izan zuenean bileretarako eliza utzi, edota langile zein euren familien ekintzetan laguntzen jardun zuen. Eskola partikularrak ere eman zizkien auzoko haurrei.

Ikastola mugarri

Horretaz gain, euskararen aldeko lan handia egin zuen "euskara asko maite zuen". Guraso batzuekin elkarlanean, Landaberri ikastolaren sorreran buru belarri aritu zen. 1966tik 1981era herriko ikastolara lotuta egon zen, hamaika kontutan laguntzeaz gain, ikastolako idazkaria izan zelarik. "Hasieran oraindik elizarekin lotura zuen ikastolak eta bera zen nolabait ikastolako apaiza eta haur eta gaztetxoek katekista".

Hainbeste urtetan borrokatutako ametsa egi bihurtu zen Zubietako lurretan Landaberri ikastola eraiki eta martxan jarri zenean. Hura izan zen Madrileria egindako bidaia eta burokrazia neketsuaren saria. 1981. urtean "ikastola utzi zuen Gasteizen bere euskal filologia ikasketak amaitzeko" gogoratzen du Consuelo Unanuek.

Apaiz izatea utzi eta ezkondu egin zen herria utzita. Nekane emaztearekin Hondarribiara joan zen bizitzera. IRALEko idazkari eta zuzendari lanetan jardun zen erretiroa hartu arte. Han ere



Astelehenero TXINTXARRIEN bidalketa prestatzera etortzen zen Pako, kafea hartu eta Beasainera abiatzen zen.

ez zion lanik egiteari utzi eta Hondarribiko portuko parrokian lagundu zuen urteetan. Esan behar da, Andoni Arozena lasartearraren inguruan liburua idatzi zuela Mikel Atxagarekin batera, "Andoni Arozena, idazle eta kazetari" izenekoa.

Lasarte-Oriako lagunekin Saustatxo elkarteetan batzen zen ostiralero afaldu eta muspartida jokatzeko: "Musean ere inoiz ez zen haserretzen", kontatzen du Felipek.

Ttakunen laguntzaile

Hain zuzen, Nekane emaztea hiltzean bueltatu zen gurera. Bere samina arintzeko, etxetik irteko aitzakiak bilatu zituela kontatzen zuen. Lasarte-Oria eta euskara uztartuta, Ttakunera hurbiltzea bururatu eta bertan azaldu zen 2001. urtean zeregin bila, baita aurkitu ere noski. Bereziki TXINTXARRIN eman zuen laguntza. Bidalketak prestatu, Correosera joan... halako lantxoak egokitu zitzaizkion eta beti prest azaltzen zen edozein eginkizunetan esku bat botatzeko.



Pako 1957an etorri zen, 1958ko Aste Santuko irudian ezkerrean ageri da. TOMAS FERNANDEZ

Azken urteetan, astelehen goizetan puntual etortzen zen espetxe zein beste erakunde eta norbanakoei egiten zaien TXINTXARRIAREN bidalketa prestatzeko. Bulegoko lagunekin kafea hartu eta Beasainera joaten zen hurrengo astelehenera arte. Beasainen ilobarekin eta honen seme-alabekin egotea gustatzen zitzaion eta.

Hala agurtu zen ekaineko azken bidalketa egin ostean: "Irailean, uzten badidazue,

zuekin egongo naiz berriz ere". Gero arte hura betiko agur bat izango zela ezin pentsa genezakeen burua argi eta oraindik osasuntsu zegoen lagunak.

Azken agurra herrian

Hondarribian egin zitzaion hileta abuztuan baina Lasarte-Oriako herritar eta lagunek antolatuta, agurra emango zaio ere gurean bihar larunbata 19:00etan San Pedro elizan.



Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
 - Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

LABURRAK.-

Denboraldi berria prestatzen hasiko dira gaur LOKEko gimnastika taldeko kideak

Iraila iristearekin batera Lasarte-Oriako Kiroldegia martxa hartzen hasten da pixkanaka. Saskibaloiko taldeak lagunarteko norgehiagokak jokatzen hasi dira, eta gaurtik aurrera LOKEko gimnastikako kideak ere sasoi berria prestatzen hasiko dira.

2006 eta 2007 urteetan jaiotako haurrak (benjamin kategoriakoak) izango dira izerditzen hasten lehenak; ostiral honetan burutuko dute lehenengo lan-saioa, 17:30etik 19:00etara bitartean. Gainontzeko kategoriako gimnastak berriz (alebina, infantilak, kade-teak, jubenilak eta seniorrak) larunbatean joango dira lehenengo Kiroldegira, 12:00etatik 14:00etara bitartean entrenatzera. Azkenik, 2008an jaiotako benjaminak urriaren 7an (asteazkena) hasiko dira; 18:30etik 19:30era entrenatuko dute.



Hasiera datorekin batera, LOKEko gimnastika alorreko kideek urtean zehar edukiko dituzten ordutegi berri eman dute. 2008an jaiotako benjaminak asteazkenetan entrenatuko dute, 18:30etik 19:30era. 2006an eta 2007an jaiotako aldiz, ostiraletan ariko dira Kiroldegian 17:30etik 19:00etara. Alebini dagokienez (2004 eta 2005ean jaiotakoak), ostiral eta larunbatetan burutuko dituzte saioak, 19:00etatik 20:00etara eta 12:00etatik 13:30era hurrenez hurren.

Infantilek ostegun eta larunbatetan egingo dituzte entrenamendu saioak, 19:00etatik 20:00etara eta 12:00etatik 14:00etara hurrenez hurren. Gainontzeko hiru kategoriak (kade-teek, jubenilek eta seniorrek) beste hainbeste aldiz entrenatuko dute astean zehar: Ostegunetan 19:00etatik 20:00etara, 19:00etatik 20:30era ostiraletan eta 12:00etatik 14:00etara larunbatetan.

Asteartean hasiko ditu entrenamendu saioak Intza KEren pilota eskolak

2000 eta 2008. urte bitartean jaiotako gazteek eta pilotan aritu nahi dutenek datorren asteartean dute lehen hitzordua, Michelingo frontoian. 18:30ean hasiko dute saioa, 20:00ak bitartean. Astearte eta ostegunetan entrenatuko dute. Izena eman nahi duen orok aipatutako ordu tartean joan beharko du Michelingo frontoira.

Buruntzaldea IKTko igerilariak Kontxako Badiako itsas zeharkaldian

Larunbat honetan Kontxako Badiako zeharkaldian hartuko dute parte Buruntzaldea IKTko zenbait igerilarik, 11:00etan, infantil kategorian. Ainhoa Martin, Leire Martin, Irati Arzalluz eta Joane Arzalluz izango dira taldea ordezkatzeko duten lau kirolariak. 740 metroko ibilbidea osatu beharko dute.

Infantil mailan bakarrik ez, senior mailan ere herriko hainbat igerilari ariko dira. 11:45ean hasiko da euren proba. 2 kilometro eta 220 metroko ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek. Lasarte-Oriako bost igerilari egongo dira irteera-lerroan: Xabier Elizegi, Iñigo Arias, Oscar Gil, Juan Vicente Martin eta Izaskun Salazar.

Babyauto Zarautz Beltzak-en errugbi taldeak denboraldi-aurrean murgilduta

2015-2016 denboraldia prestatzen hasiak dira kategoria desberdinetako taldeak. 14, 16 eta 18 urtez azpikoak entrenatzen hasi dira eta seniorrek zenbait lagunarteko partidu jokatu dituzte.

Abuztuaren 29an Hernani garaitu zuten, Iñaki Quesada zenaren omenaldi-norgehiagokan. Pasa den larunbatean ezin izan zuten Boucau-Tarnos talde frantsesa mendean hartu baina berehala kendu zuten arantzaxoa, asteartean Atletico San Sebastiani 7-26 irabazi ostean. Hainbat herritarrek hartu dute parte: Xabi Prietok, Ander eta Xabi Rekondok, David Vegak eta Iñigo Rodriguez-Navasek. Unai Urruzola, Beñat Arroyo, Ibai Mitxelena eta Andoni Amonarriz laster sartuko dira taldean.

Bestalde, ostiral honetan jarriko dute martxan errugbi eskola. Michelinen entrenatuko dute, 18:15ean. 10 eta 12 urtez azpiko taldeetako gaztetxoak ariko dira bertan.

SASKIBALOA.-

Hazten jarraitzen du saskibaloiak

Bost talde eta eskola bilduko ditu Ostadar SKTren alorrak

Gero eta talde eta egitasmo gehiago biltzen ditu Ostadarren saskibaloialorrak; etengabe ari da hazten, herriko gazteen artean gero eta ohikoago bilakatzen. Lehengo urteko beste talde bat gehiago gehituko die eta eskola sortuko dute 8 eta 11 urteko haurrentzat.

IÑIGO GONZALEZ

Eskaintzen duten lan meto-
do bermatzea, jokalaria talde bakoitzak eskatzen duen estiloa lantzea eta, batez ere, saskibaloiaz gozatzea dira Ostadar SKTren saskibaloialorra osatzen duten kideen helburu nagusiak, Endika Marrahi koordinatzailearen hitzetan.

“Argi dago atala hazten ari dela, kiroldegia gero eta beteago ikusten dugu astebururo; kaleetan gero eta haur gehiago ikusten ditugu saskibaloiko baloiekin jolasean, ilusio asko egiten digu horrek”, nabarmendu du Marrahi. “Toki guztietara iritsi nahi dugu, hori lortu nahi dugu”, gaineratu du.

Bazter denetara ez dira iritsi oraindik, baina ezin ukatu daiteke gero eta gehiago hazten ari dela sekzioa. Aurtengo denboraldian bost talde ariko dira lehian: Partizipaziozko eta



Ostadar SKT eta Lagunak taldeko jokalariek Kiroldegian, pasa den astean.

Errendimenduko kadeteak, Partizipaziozko eta Errendimenduko juniorrak (nesken taldeak horiek denak) eta 3. probintzialeko senior mutilak.

50 bat jokalaria ariko dira 5 talde horietan. Entrenatzaileak 4 izango dira momentuz; “konfirmatzeke” dute bosgarrena, Marrahi jakinarazi duenez. Endika Marrahi bera, Ander Otaegi, Iraitz Rodriguez eta Borja Franganillo dira prestatzaileak. Donostiarrak dira azken biak.

Irailaren 19ko asteburuan hasiko dute konpetizioa Errendimenduko bi taldeek; urrira arte itxaron beharko dute gainontzeko hiruek. “Euskal Ligan sartzeko lehiatuko dute Errendimenduko bi taldeek; mutilek eboluzionatu egin du, entrenatzailea daukagu aurten eta gure arteko harremana hazi

egin da. Kadeteek dagokienez, aurtengo denboraldian Ostadarren lehenengo urtekoak; hori da lan gehien eskatzen digun taldea”, adierazi du Marrahi.

Saskibaloia eskola

8 eta 11 urte bitarteko gazte-txoentzako saskibaloia eskola sortuko du Ostadarrek aurtengoan. Urritik hasita ostiral guztietan eskainiko die aukera saskibaloia mundua ezagutu eta pixkanaka trebatzen hasteko. Kirol gunean egingo dituzte saioak, 18:15etik 19:30era. Irekita dute jada bertan izena emateko epea. “Inpultso pixka bat behar dugu eskolarekin. Egitasmo berri bat da eta herri-tarrak ez daude oso informatuta ikusten dugunez. Txikiei kosta egiten zaie izena ematea baina uste dugu indar asko har dezakeela”, dio Marrahi.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 12

Ondartza futbol zelaia, 17:00etan
Hondarribia FE - Ostadar SKT
Ohorezko Erregional maila, lehenengo jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 12

Donostia, Kontxako badia, 11:45ean
Kontxako Badiako itsas zeharkaldia, 72. edizioa. Hainbat herritarrek infantil eta senior kategorian hartuko dute parte. Seniorrek 2 kilometro eta 220 metroko ibilbidea osatu beharko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 12 - Igandea 13

Oñati eta Ibarako probak
Bazpiko ziklista jubenilek Udazkeneko XVI. Kriteriumeko proba desberdinetan hartuko dute parte.

Larunbata 12

Oñati, 10:00etan
Jubenil mailako Bazpiko txirrindulariek Oñatin emango diote hasiera Udazkeneko XVI. Kriteriumari.

Oñati, 17:00etan

Bazpiko txirrindulariek Udazkeneko Kriteriumaren bigarren lasterketa izango dute, erlojupekoa izango da.

Igandea 13

Ibarra, 10:00etan
Bazpiko txirrindulariek Udazkeneko Kriteriumaren hirugarren eta azken lasterketa izango dute.

ATLETISMOA

Igandea 13

Idiazabal, 9:30ean
Axari Trail mendi lasterketa. Herriko hainbat lasterkari hartuko dute parte 16,4 kilometro luze dituen proba horretan.

TRIATLOIA

Larunbata 12

Zumaia, 17:00etan
Herriko Saiatuz triatloi taldeko zenbait kidek hartuko dute parte Zumaian ospatuko den IX. Sprint triatloian. 750 metro egingo dituzte igerian, 20 bizikletan eta beste 5 lasterka.

SASKIBALOA

Larunbata 12

Lasarte-Oriako Kiroldegia, 10:30ean
Ostadar SKT 'A' - Teresianas Errendimenduko junior mailako taldeak lagunarteko norgehiagoka jokatuko du Nafarroako Teresianas taldearen kontra.

Lasarte-Oriako Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar SKT 'A' - La Salle Errendimenduko junior mailako taldeak lagunarteko norgehiagoka jokatuko du Bizkaiko La Salle taldearen kontra.

— Agenda —

Gaur, Jaizkibel plaza, 21:00etan



Extrema y dura Rock Jaia

Extremadura etxeak gaur hasiko ditu Guadalupeko Ama Birjinaren oroime-
nezko jaiak. Urteroko hitzordu honetan denetariko ekintzak antolatzen saia-
tzen da herriko extremadurar komunitatea. Horien artean aurtengoan musika
jaialdia izango da. 21:00etan hasita, Extrema y Dura Rock Jaia prestatu dute
hainbat talderen laguntzarekin. Honetan arituko dira, The Garax, The Zepo,
The Northagirres, Bar Remigio taldeak eta DJ Avila. Musika estilo ezberdinak
joko dituzte publikoaren gozameneko. Kontzertuak doan dira eta herritar-
rak animatzen dituzte ekintza honetan zein asteburu osoan zehar antolatuko
dituztenetara gerturatzea. Haur zein helduentzat izango da aukera jaiari mur-
giltzeko.

Lasarte-Oria

Guadalupeko Ama Birjinaren jaiak

JAIZKIBEL PLAZA

Ostirala 11

21:00etan, Bandera goratzea

21:30ean, Afari herrikoia Extrema-
dura etxean. Extremadurako kaldere-
ta, ogia ardoa, postrea eta kafea
izango dira barne

Larunbata 12

10:00etatik 17:00etara, Haurren-
tzako jolasak

10:00etatik 17:00etara, pintura
lehiaketa egingo da. 2KN okindegian
hasiko da

12:00etan, Extremadurak Meza
Extremadura etxean. Honetan Erren-
terriako 'Ecos de Monfragüe' kantari
taldeak lagunduko du bere doinue-
kin

12:00etatik, Lasarte-Oriako Oaintxe
in deu txarangak auzoa girotuko du

14:00etan, Bazkari herrikoia

16:30ean, Museko Txapelketa irekia.

Amaitzean, sari banaketa

17:00ean, Futbolin txapelketa Buggy
tabernan

17:00etan, Haur jolasetan irabazle
suertatu direnen sari banaketa

18:00ean, 'Raices y Brotes' taldea-
ren emanaldia

21:30ean, Bazkide eta lagunien afari
herrikoia egingo da herriko aginta-

riekin batera

00:00etan, Dantzaldia Ibai Berriak
taldearekin.

Igandea 13

01:00etan, Parrandan daudenent-
zat, indarrak hartzeko, migak bana-
tuko ditu elkarteak

12:30ean, herriko Semblante Anda-
luz elkarteko 'Zambra' taldearen
emanaldia

14:00etan, Bazkari herrikoia

16:30ean, Tuteko txapelketa irekia

18:00etan, Bola joko txapelketa

Txapelketak amaitzean, sari
banaketa

20:00etan, Jaien bukaera eta ban-
dera jaitsiera.

Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

Gurea erakundearen 40. urteurrena
dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien
lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna
ulertzen' erakusketa izango da ikus-
gai. Sarrera doan.



— Herritarren txokoa —

Erketz Dantza eskolan izena emateko epea zabalik

5 eta 14 urte arteko haur eta gazteek aukera dute Erketz euskal dantza taldean izena emateko. Honetarako egun batzuk zehaztu dituzte, irailaren 15, 16 edota 17an 18:00etatik 20:00etara Zumaburuko eskolan. Informazio gehiagorako 635 746 028 telefonora dei daiteke.

Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria. Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, biyakbat@gmail.com helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, asteleheneetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Intza K.E-ren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa irailaren 25ean itxi egingo da. Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da. Baldintza bezala, bikote bakoitzean Intzako bazkide bat egon beharko du.

Eskutitza

Europak ez du bihotzik. Merkatu eta merkatarien Europak ez du bihotzik, baina kartera bai. Hori kontu zaharra da, zaharra eta ezaguna ezagutu nahi duenarentzat. Ikusi izan ditugu pateratan etorritako milaka migrariak hiltzen lehen: Melillako hesietan ehunka zintzilikatuta, golf zelaien ondoan; itsasoan igerian, hondartzara iritsi nahian Guardia Zibilaren pilotakaden artean. Baina ez da, bakarrik, gobernu baten kontua; oraingo edo aurreko gobernuaren kontua; hemengo edo hango gobernuaren kontua; antzekoak ikusi izan baititugu Italiako Lampedusa kostaldearen aldean, edo Frantziako Calais aldean, edota Europa osoko frontera guztietan zehar.

Eta ez da hau edo beste eskuineko gobernu baten kontua, hau edo beste uestezko ezkerreko gobernuarena. Politika baten kontua da. Kontua eta ondorio zuzena. Kapitalismoaren ondorio zuzen eta ezinbestekoa. Bere burua demokratizatzen duen Europa honek, Estatu Batuen eskutik, esan gabe doa, Irak edota Afganistango gerrak bultzatu edota babestu ditu, demokraziaren izenean baina petrolio eta gasaren hobe beharrez. Arabia Saudi bezalako estatu feudala,

Migrantei buruzko EH Bilduren adierazpena

Marokoko monarkia absolutista, Egiptoko golpistak, Israelgo estatu ia teokratikoa, Afrikako hainbat diktadoreak... denek daukate Europaren konplizitatea, geoestrategia eta banku eta multinazionalen hobe beharrez.

Horixe da daukagun Europa. Berriki, txakur moduan tratatu eta umiliatu duen Greziako gobernu eta herria, pribatizazioak eta murrizketak inposatu. Baina gastu sozialaren murrizketa inposatu, ez gastu militarrena. Ez Alemaniari edo Frantziari hegazkin militarrek edo fragatak erosteko, adibidez. Ezagutzen ditugu hemen ere pribatizazioak eta eskubide sozialen galerak, eta badakigu zeintzuk erabaki zituzten eta zeintzuk diren onuradunak.

Hauxe da begien aurrean eta tripetan sartuta daukagun oraingo dramaren iturria eta jatorria. Gerratik eta miseriatik ihesean ari diren milaka eta milaka pertsona, hainbestetan aipatzen diren "munduko herritarrak". Eta ez gaitzen engaina: mafiek ez dute hau sortu. Lehen aipatutako arrazoiak eta Europak ezarritako migrazio politikak sortzen ditu hildakoak. Mafienak merkatu kontua da: eskaria sortzen du eskaintzarena. Guk bezala, tren edota

hegazkinetako txartela erositako posible balute ez lirateke itsasoan itoko.

Hauxe da, beraz, aurrean daukagun krisia. Ez dezagun hipokrisiaz erantzun. Ez dezagun karitatezko keinu batez erantzun. Badakigu udal batek baliabide mugatuak dituela, eta, aurretik ere, behar handiak daudela herrian. Badakigu epe laburrean eman beharreko erantzuna asistentzialista izan behar duela. Baina ez gaitzen horretan geratu. Horregatik eskatzen dugu egin behar den lanketari jarraipena ematea, Bozera maileen Batzordea, Gizarte Zerbitzuetako Batzordea, edo biak, tresna egokiak izan daitezke. Borondatez eta irudimenaz gauza asko egin ditzakete udalak eta herritarrek. Baina krisi honen sorreran dauden arazo eta arrazoiak heldu behar diegu egoera hauek gerta ez daitezen, herrenak ekoizten dituen fabrikaren ortopedia tailerra ez badugu izan nahi, behintzat; konplizeak ez badugu izan nahi, alegia.

Lasarte-Oriako EH Bildu

EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HELDUEN HEZKUNTZA

Educación de Personas Adultas

2015-2016 ikasturtea

**Matrikula
epea
irekita**



Beko kalea bidea 1, 3. (Anbulategi gainean) • Lasarte-Oria
Tel.: 943 376443 / 943 366608 www.epalasarte.es



LASARTE-ORIA
Udal Euskaltegia

2015/2016 EUSKARA IKASTAROAK

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA



943 361621

Bulego ordutegia: 09:00-19:15

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailtik ekainera
Matrikulaldia: Irailaren 1etik 15ra

Gainera, irailaren 1etik 15ra izena ematen baduzu, 10 kuotatan ordaintzeko aukera izango duzu.

Diru-laguntzak: % 85!!!. Galde ezazu!



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Behoko kale bidea 1

Tf: 943361621

e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2015-16

%85



BEKA

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

**ONDO
iBiLi!**